


EUSKERA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2019



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

# Miguel A. García & Ensemble

*Hotsetan, musika esperimentaleko programa*



Miguel A. García & Ensemble taldeak bere lana aurkeztuko du hurbileko eta nazioarteko soinu-artisten lana ezagutzera ematen duen Hotsetan musika esperimentalako programaren barruan.

Miguel A. Garciaren elektronika esperimentalak elikatzen duen gertaera musikala da; instrumentu akustikoak eta ahotsak kasu horretan fagozitate egiten ditu, eta zuzenekoan berriro agertzen dira. Magma elektronikotik sortuta, soinuaren autodeterminaziora arte iristen dira.

**Konposizio elektro-akustikoen itxurarekin, kanal askoko elektronikaren eta aldi bereko instrumentazioaren arteko nahasketa honek erreferentzia egiten die musika klasiko garaikideari, musika esperimentalari eta “noise” musikari.**

Ordenak eta hierarkiak aldatuz, oso martetarra izanik aldi berean bikaina den film bateko soinu banda moduko bat ematen du.

Erakusketa honetarako, tokiko hainbat artista eta musikarirekin arituko dira elkarlanean; kontzertua baino lehenagotik, elkarrekin egingo dute lan tailer batean.

+info hemen: [www.xedh.org/piezas](http://www.xedh.org/piezas)



**Ekainak 8, larunbata**

19:00

Auditorioa

8€ / 6€ Az Txartelarekin  
Sarrerak: [Infopuntua](mailto:Infopuntua@zedh.org) eta  
[www.azkunazentroa.eus](http://www.azkunazentroa.eus)



 [www.xedh.org](http://www.xedh.org)



**MIGUEL A. GARCÍA** aka Xedh Estatuko soinu-artistarik geldiezinetako bat da, eta bere proposamenak instalazioa, konposizioa eta inprobisazio elektroakustikoa hartzen ditu barnean. Bakarka nahiz hainbat taldetan, Europa, Asia eta Amerikako herrialde askotan egin izan du lan, bai eta disko ugari editatu ere.

Aldi berean, programatzaile-antolatzaile moduan, Le Larraskito Klubaren sortzailea da, Zarata Fest jaialdiaren zuzendaria, eta Hotsetan programaren koordinazioko kidea; guztiak ere arriskatzen diren musikak eta horiekin lotutako diziplinak hedatzen aritzen diren plataformak dira.

